

**GIPUZKOAKO ZURAREN SEKTOREKO ENPRESEK ETA LANGILEEK  
GEROA BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEARI  
EGIN BEHARREKO EKARPENEI BURUZKO AKORDIOA SINATZEAREN  
AKTA**

**Langileen ordezkariak**

**ELA-STV**

Luis M<sup>a</sup> Arana

Ángel Molina

**LAB**

Patxi Alzibar

Gurutz Lasa

**CCOO**

Evelio Domínguez

**UGT**

José Martín

**Enpresen ordezkariak**

**Zuraren Merk. Zerb.**

Juan M<sup>a</sup> Zubizarreta Arambarri

**Arotzen Elkarteak**

Carlos Boyero

José Ramón Esnaola

**ADEGI**

Juan Ramón Apezetxea

Donostian, 1999ko apirilaren 28an, ADEGIren egoitzan bildu dira goraxeago adierazi diren pertsonak. Pertsona horiek osatzen duten Akordioaren Batzorde Negoziatzaileak erabaki beharko du Gipuzkoako zuraren industriaren sektoreko enpresa eta langileek GEROA,

BGAERI egin beharreko ekarpenak finkatu behar dituen Akordioa. GEROA, BGAEK Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen erregistroan 178-G zenbakia du.

Enpresen ordezkariak, hau da, ADEGIk, Zuraren Merkataritza Zerbitzuak eta Arotzen Elkarteak eta, bestetik, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek ondokoa erabaki dute:

1. Akordio hauek Gipuzkoako zuraren industriaren sektoreko enpresa eta langile guztiengan dute eragina.

Hori dela-eta, akordio hauen aplikazio-esparruak bat egingo du indarrean dagoen 1999-2000ko Gipuzkoako zuraren industriarako hitzarmen kolektiboaren 2. artikuluan (esparru funtzionala) eta 3. artikuluko lehen paragrafoan (esparru pertsonala) ezartzen den esparru funtzional eta pertsonalarekin. Hortaz, adierazitako esparruan barne hartzen diren zuraren industriako enpresa eta lantegi guztietan eta bertako langileengan izango du eragina akordio horrek, enpresa eta lantegi horietan beren hitzarmen edo itun kolektiboak dituzten arren edo gauza ditzaketan arren.

2. 1994ko ekainaren 20ko Gizarte Segurantzaren Legearen 39.2. artikuluan adierazitakoaren indarrez, akordio honen eraginpean dauden enpresek eta langileek GEROA Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari hilean nahitaez egin beharreko ekarpena ondokoa izango da:

- **Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko maiatzaren batetik aurrera** langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %1,50, %0,75 langilearen kargura izango da eta beste %0,75 enpresaren kargura.

- **Bi milako urtarrilaren batetik aurrera** langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %2, %1 langilearen kargura izango da eta beste %1 enpresaren kargura.

Enpresak batera egingo ditu ekarpenak; hortaz, langilearen kargurako ehunekoa dagokion soldataren nominatik kenduko da.

3. Akordio hauek “gai jakin bati buruzko akordioak” dira, Langileen Estatutuaren 83.3. artikuluan aintzat hartzen den moduan. Hala, erakunde sinatzaileek artikuluko horretan jasotzen den ordezkariak izango dute.

4. Lan Agintaritzari Akordio hauek jaso eta erregistra ditzen eskatuko zaio, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzen ere.

Eta, besterik gabe, amaiera eman zaio bilkurari goian adierazitako hirian eta egunean.